

## GALBAHEA

- **Txomin Garmendia:** "Ezagutu nun soiñujole bat, naiko ona zan eta sasoirik onena zun garaiean utzi zion; ark ala esaten zun pabrika batean lan egiten zunez, "jai gauean goizaldera etxera eta lanera lo askorik egin gabe burua ezin jasorik, utzi eta kito". Beste gazte batzuei soiñua jotzen erakusten ibilli oi zan, baiña bere seme-alabei tekla edo botoi bat sakatzen etzien erakutsi. Ortatik pentsa zer etorkizun ikusten zun soiñuarekin. Soiñu-jotzea, bertsolaritza eta abar, irabazbide politikak izan litezke, zeure kontura dendatxoren bat badezu eta orrela; baiña beste nagusi baten mendera lanera joan bear badezu, kontuz!"

(El Diario Vasco, 2009-06-18)

- **Maria Luisa Irastorza:** "Egun erraztasun gehiago daude eta musikariek ordu gehiago sartzen dituzte. Gainera, prestakuntza gehiago dute eta akordeoiak hobekiago dira. Une honetan abestiak eta emanaldiak teknikoagoak dira eta ni melodikoagoa nintzen. Merkatua zabaldu egin da eta orain ehunka artista daude, nire garaian oso jende gutxi zegoen eta Espainia guztian akordeoia jotzen zuten 3 edo 4 neska zeuden bakarrik. Halaber, musikaz bizi diren musikari gutxi daude oraindik eta gehienek laukoteak osatzen dituzte emanaldiak emateko."

(Tolosaldeko Hitz, 2009-07-15)

- **Ines Osinaga** Berrian, honoko galderari erantzunez: *Trikitia zer da?* "Niretzat, Italiatik heldutako akordeoi diatonikoa. Herri musikan erabiltzen diren musika tresna asko bezala, trikitia ere geure egin dugu. Maileguz hartzen ditugun tresnei guk ematen dizkiegu konnotazioak eta gure nortasunaren parte egiten ditugu herrian erroto direlako. Baina, izatez, trikitia akordeoi diatonikoa da."

(Berria, 2009-05-03)

## ZESUMA

### IÑAKI PLAZA ETA ION GARMENDIA ITALIAN

Eurofolk jaialdia Italiako Maiolati herrian egin da aurten, uztailearen hasieran, eta bertan izan dira Iñaki Plaza eta Ion Garmendia kontzertu eta ikastaroak eskaintzen. Lau egunez, Euskal Herriko folkloreak eta tradizioaren ikuspegi berriak eskaini dute: tradizioaren eta esperimenduaren arteko emaitza. Ikusle eta gainerako musikariek harrera bikaina egin diete Iñaki Plaza eta Ion Garmendiaren lanari.

Euskal Herriko musika-tresna tradizionalen erakusketa eta ikastaroak gain, euskal dantzen ikastaroa, kontzertu didaktikoa eta "20 Hatz proiektu" diskoaren aurkezpen kontzertua eskaini dituzte. Halakoetan ohi denez, beste herrialdeetako musikariek batera jotzeko aukera ere izan dute.

### ESNE BELTZA JAPONIAN

Esne Beltza taldeak lau kontzertu eman ditu Japonian uztailearen bukaeran. Tokioko Radical Music Network jaialdian egin dute lehen emanaldia. Naeban izaten den Fujirock Festival-en bitan aritu dira jotzen, eta birari amaiera emateko, Blue Moon aretoan jo dute; Tokiotik ordubetera dagoen Isshiki hondartzan. *Made in Euskal Herria* diskoa aurkeztu du bertan Esne Beltza taldeak.

### KORRONTZI FOLK JAIALDIETAN

Korrontzi taldeak Sopuertako *Mendebala* eta Ortigueirako (A Coruña) folk jaialdietan hartu du parte. Kantauriko kulturak biltzen dituen Mendebala jaialdian, irekiera kontzertu eman du aurten Korrontzi taldeak. Ortigueiran berriz, izen handiko taldeekin batera jo dute: bertan izan dira, besteak beste, Xose Manuel Budiño galiziarra, La Bottine Souriante edota Wolfstone eskoziarrak. Mundu mailako folk jaialdi entzutetsuen artean dago Ortigueirakoa eta, bertan, Korrontzik, trikitixa oinarri hartuta, antzinako euskal folk doinuak eskaini ditu.

# ALTZA PORRU!


2009ko abuztua / 34.zenbakia

EHTE Alameda 1, 20800 ZARAUTZ · Tel.: 943 83 28 28  
[www.trikitixa.net](http://www.trikitixa.net) / [www.trikimailua.com](http://www.trikimailua.com)



Euskal Herriko  
Trikitixa Elkartea  
L.G.: SS-418/01

## ESTEBAN LARRAÑAGA GOGOAN, DOZENAKA TRIKITILARI HILETAN



Loiolakoa jaiotzez, Urretxun osatu zuen familia. Trikitizale sutsua, langile amorratua eta gure Elkarteko sortzailea. Gaixotasun luze baten ondoren, 62 urterekin joan zaigu Esteban Larrañaga Soraluze: Euskal Herriko Trikitixa Elkarteko aurreneko lehendakaria.

Urretxuko San Martin de Tours eliza txiki geratu zen hiletarako. Eliza bete jende bildu zen Esteban Larrañagari azken agurra ematera. Tartean, dozenaka trikitilari izan ziren eliza atarian jotzen.

Bederatzi urterekin Donostiara joan zen Esteban Larrañaga, Mirakontxan zegoen moja eskola batera. Handik Aragoira, Moncayo mendiaren azpian dagoen jesuiten etxera joan zen eta, azkenean, Xabierko gazteluan amaitu zituen ikasketak. Bertan izan zuen soinu



batekin aurreneko harremana, Zabala aitaren eskutik. Soinu handia jotzen zuen, izan ere, Estabanek.

Soldaduskatik bueltan, Urretxura ezkondu eta bertan osatu zuen familia. Arrate Irratian trikitixari buruzko saioa egin zuen, lehiaketa ugaritan aritu zen epaimahai moduan eta hainbat aldizkaritan ere idatzitakoa zen.

Elkarteak 2003an omenaldia eskaini zion, Donostiako Kursaal jauregian, Nazioarteko Trikitixa Jaialdiaren baitan. 30 urtez Elkartearantz egindako lana eskertzeko parada izan zen hura. Urtebete geroago, EITBk Azpeitian antolatzen zuen San Josetako jaialdian omendu zuten. Azkenik, joan den udaberrian, Zumarraga eta Urretxuko I. Trikitixa Eguna baliatu zuten Esteban Larrañagaren lana goratzeko.

Uztailearen 17an hil zen. Goian bego!



## ARRAKASTA ARRASTAKA: PARTITURA LIBURUA eta DISKOA



Irakaskuntzarako materiala osatzeko bidean, pieza zaharretatik modan egondako kantuetara egin du jauzia Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak. **Triki-poparen doinu arrakastatsuenen bilduma** da *Arrakasta Arrastaka* izeneko hau.

Hamabi talde eta beste horrenbeste kantu ezagun bildu ditugu: Elkar diskoetxearekin batera gauzatutako proiektua izanik,

**disko batez lagunduta dator partitura liburua.** Ikasleek, partiturak irakurtzearekin batera, trikitixa berriaren doinu ezagunenak entzuteko aukera ere izango dute.

Kantu hauek osatzen dute *Soinua Paperean* bildumaren bosgarren alea:

**Alaitz eta Maider:** Txanpon baten truke  
**Kepa Junkera:** Madagaskar  
**Maixa ta Ixiar:** Bexamela eta pastela  
**Imuntzo eta Beloki:** Gizontxo gizontxo  
**Iker Goenaga:** Elgeta  
**Etzakit:** Egina  
**Epelde eta Larrañaga:** Kupela  
**Amaia eta Kristina:** 104 ilargi  
**Gozategi:** Nirekin  
**Tapia eta Leturia:** Hik lan eta nik jai  
**Urgabe:** Kolore gabeko  
**Zabaleta eta Imanol:** Gaueko errondea

## INPERNUKO POZA: TRIKITIXAREN VII. JARDUNALDIA



Emakumea eta trikitixa. Edota trikitixa eta emakumea. Gaur egun, elkarrekin ongi ezkonzen diren bi hitz hauek, elkarrengandik aparte bizi izan ziren halabeharrez. Ez da hainbeste denbora emakumeak debeketik plazarako bidea egin zuenetik. Jardunaldiok, ezkututik jendaurrerako bide hori erakutsi nahi dute.

**Irailak 10, osteguna: HITZALDI MUSIKATUA**

**Fredi Paia: "Aupa Maurizia!"**

Maurizia Aldeiturriaga (Zeberio, 1904-1988) XX. mendeko euskal musika herrikoia ikono handietako bat izan zen. Gaztetatik kantuan, soinu eta albokari laguntzen, 60ko hamarkadan hartu zuen osperik handiena. Orduko musika tendentzia berriak jorratzen zituzten gazteak ere txundituta utzi zituen. Bere bizitzaren pasarte garrantzitsuenak, bere kantaera, errepertorioa eta koplari-tzarekiko hartu-emanaz ezagutzera gonbidatzen zaituztegu.

Orain arte entzun ez diren grabazioak, Mauriziari berari eta Leon Bilbaori egindako elkarrizketa eta zuzeneko kopia emanaldia.

Musikari laguntzaileak:

Fredi Paia - biolina eta panderoa  
Ekaitz Larrazabal - alboka eta kajoi flamenkoa

**irailak 11, ostirala: MAHAI-INGURU MUSIKATUA**

**"Taula gaintetik begira"**

**Maixa Lizarribar**  
**Ines Osinaga**  
**Amaia Zubiria**  
**Maria Luisa Irastorza**

Mahai beraren bueltan jarriko ditugu lau emakumezko: neskek osatutako lehendabiziko erromeria-taldea sortu zuena, trikitia elektronikarekin nahastu duena, euskal kantagintzaren erreferentzia, eta ezkonduetakoan, soinua utzi behar izan zuena. Taula gainera igotzeko, emakume izateak sortu izan dizkien trabak, zailtasunak eta erronkak entzungo ditugu. Beren kontuek eta kantuek eramango gaituzte plazara.

**NOIZ: irailaren 10 eta 11an, 19:00tan**

**NON: Donostiako Udal Liburutegiko sotoan (San Jeronimo kaletik)**

## HAUSPO KONTARI

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak **trikitilari zaharren testigantzak** biltzen ari da, *Hauspo kontari* izeneko proiektuan. Makina bat elkarrizketa grabatu ditugu dagoeneko bideoan eta, aurki, interneten ikusgai izango dira hainbat pasarte. Hona hemen, horien aurrerapen txiki bat.

**Iñaki Garmendia "Laja":** "Elgetak nota bat diferente ipinita zion soinuari. Berak niri esaten zidan, Italiatik hala etorritakoa zela soinua... eta gero enteratu nintzen, beste inork bere soinuarekin jotzerik nahi ez zuelako zeukala jarrita alderantziz sostenidoa. Bestela soinua edozeinek hartzen ziola eta alrebeska jarri zion! Guk irekiz jotzen genuena, hark ixten. Ikasten ari nintzela, berak ixten jotzen zuena "hik irekiz jo behar dek!" esaten zidan. Gero jakin nuen bai, hark propio zeukala diferente jarrita, beste inork bere soinuarekin ez jotzeko."



## Disko berriak KEPA JUNKERA: PROVENÇA SESSIONS

Kepa Junkerak Fandango bildumako aurreneko diskoa kaleratu du: *Provença Sessions* izeneko. Nizako Melonious Quartet mandolina taldearekin elkarlanean, trikitilari bilbotarraren hamalau pieza moldatu dituzte. Junkerak egin du bere kantuen aukeraketa eta Patrick Vaillantek, ondoren, moldaketak.



## IKER GOENAGA

Zizurkilgo trikitilariaren laugarren diskoa aurki izango da kalean. "... arteraino" lanak 13 doinu berri bilduko ditu, abestutako nahiz pieza instrumentalen arteko oreka bilatuta. Lan honetan betiko musikariez inguratuta dator: Beñat Barandiaran kitarra akustikoarekin, Iban Gurrutxaga kitarra elektrikoan, Mikel Atxega baxuarekin eta Iñigo Egia perkusioa jotzen. Aurrerapen kantuak "umea eta mapa" du izena: Joseba Sarrionaindiaren hitzei jarri die musika Iker Goenagak.

## TRIKITILARI GAZTEEN TXAPELKETAK

Udak festak bezala, herriko jaiak trikitixa txapelketak dakartzate beraiekin. Orain artekoetan nabarmendu direnak eta aurki izango den Zarauzko txapelketaren berri bildu dugu tarte honetan.

**Getariko X. txapelketa: maiatzak 30.**

- 1.- Monik Valor eta Eider Iraola
- 2.- Edurne Errandonea eta Ander Beldarrain

**Arroa Beheko I. txapelketa: uztailak 19.**

- 1.- Monik Valor eta Eider Iraola
- 2.- Edurne Errandonea eta Ander Beldarrain

**Zuebietako XII. txapelketa: uztailak 25**

- 1.- Leire eta Maria Lasa
- 2.- Edurne Errandonea eta Ander Beldarrain

**Zeanuriko XXIX. txapelketa: abuztuak 1.**

- 1.- Leire Zumeta eta Amaia Arza
- 2.- Amaiur Luluaga eta Amaiur Lertxundi

**Berastegiko II. txapelketa: abuztuak 9.**

- 1.- Xabier Etxaniz eta Idurre Arriola
- 2.- Leire Zumeta eta Amaia Arza

**Zarauzko XXIX. txapelketarako, oinarriak:**

- **Maila bakarra izango da:** Soinujoleak, txapelketa egunean 14, 15, 16 edo 17 urte beteak izango ditu. Pandero joleak

## TRIKIDANTZ



Erromeria talde nafarrak hamar kantuz osatutako diskoa kaleratu du: *Trikidantz*. Fandango eta arinarin tradizionaleri eustearrekin batera, beste hainbat estilotako piezak ere sartu dituzte. Taldeak sortu du kantu guztien musika eta, letragileen artean ageri dira, Jon Barberena edota Julen Zelaieta bertsolari nafarrak. Aurtizko entsegu lokalean bertan grabatu eta nahastu dute diskoa.

**NOIZ: Irailaren 2an, asteazkenean, 22:00tan**  
**NON: Zinema Pilotalekuan**

## FASIOREN JAIOTZAREN MENDEURRENA

Abuztuaren 30ean 100 urte beteko dira Bonifazio Arandia "Fasio" jaio zela. Igorreko Elexalde auzoan sortutako soinu-jolea 13 urterekin hasi zen plazetan jotzen. Urte askoan utzita egon ondoren, Maurizia eta Leon Bilbaorekin hirukoa osatu zuen 70eko hamarkadan. Igorreko Udalak aste kulturala antolatu du irailerako Fasioren bueltan: besteak beste, erakusketa, mahai-ingurua, erromeria eta trikitixa jaialdia izango dira irailaren 18tik 26ra.